

...eta kitto


775 zkia. 2011-IX-23

ASTEKARIA

TOKIKOM



Emaitze zu zure onena: euskerera



Clinica Oftalmologica
RECALDE
Oftalmologia Klinika

PRESBIZIAREN KIRURGIA

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com




IRAZABAL
clínica dental



Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

Badirelako gauza batzuk galtzea komeni ez direnak...
IRAZABAL KLINIKAN txikienen aho-hortzetako
prebentzioaren alde egiten dugu apustu.
Egizuz PADI-ren azterketak.

ARTOLA



ARTOLA
Tokia gordetzeko
943206348 *jatetxea*

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Lomo iberikoaren carpaccio-a
Etxeko foie-a*

Txipiroi eta tipulin nahaskia

*Legatza plantxan edo
Bakailaoa Club Ranero erara*

*Solomilloa plantxan edo
Karrillerak saltsan*

*Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate mousse-a Armagnac erara*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

25 € + BEZ

Astelehenetik barixakura
EGUNEKO MENUA
15 €

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidier Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Maidier Aranberri

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.100 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HOR.- Eginkizun bati indarra emateko erabiltzen da. "Hor zure ibilleren ondorioa!".

HOR BA, HOR BA.- Norbaitek pentsatutakoa edo esandakoa berresteko erabiltzen da. "Hor ba, hor ba! Gero h6nek tabernarixok ardauari urik ez detsela egitten esango juek!".

HORI DOK/DON HORI !.- Animatzeko eta txalotzeko esaten dena. "Hori dok hori! Beste arraratzko bat eta onduta daukak goizekua!".

HOR KONPON, MARI ANTONI.- Norbait guk nahi duguna egin nahi ez duelako etsita gaudenean, azkenean bakarrik laga eta botatzen zaion esaldia. "Hor konpon, Mari Anton, nik neuria egin jonat eta!".

ESKUTITZAK

HEZIZ GEHIAGO ETA ESPAINIAR ERAKO POLITIKA GUTXIAGO!

Astekari honetako azken zenbakian, Armeria Eskolako zuzendararen sinadurapean, Espainiako inperiario ohore eginez hilaren 10eko ekitaldian parte hartu zuten lagun eta erakunde eskerrak ematen zitzaizkien eskutitza kaleratu zen. Kontrakoa esatea gustatuko balitzaidake ere, egia esateko eta "Armera"ren zuzendaritzaren azken urteotako ibilbidea ikusita, karta horrekin ez dut inolako ezustekorik jaso.

Zuzendaritza horrek ez du inolako eskrupulorik erakusten errege etxea ofizialki gonbidatzeko Borboiak parte har dezan zentroaren mendeurrena ospatzeko ekitaldian; aldi berean, bertako ikasleak euren praktikak doaneko eskulan moduan eskualde osoko enpresetan erabiliak izan daitezten ahalbidetzen du. Azken ikasturtean asko izan gara Eskolako ikasleek jasotzen duten tratuz gure kezka azaldu dugun ordezkari sindikalak, ikusita Alfa, ABC edo Rodisa moduko enpresa indartsuak, praktiketan diharduten aitzakiarekin zelan erabiltzen dituzten behargin horiek doan lan egiteko.

Gaurko egoera ekonomikoan, azken hamarkadeta Euskal Herriko langabezi tasa gorenekin gagozela, lanpostuak ikasleak esplotatuz amortizatzea guztiz

nazkagarria izanda ere, aberranteagoa da oraindik zuzendaritza horrek, horren jakitun eta baimendun izateaz gain, halako jarduerak saritzea gure herriko gaztediaz aprobetxatzen diren eskrupulorik gabeko enpresen zuzentzen dizkien esker oneko agiriaren bitartez.

Orain dela sei bat hilabete Armeria Eskolako zuzendaritzari idatziz bidalitako oharraren erantzunik jaso ez izatearen zergatia azken aldian bai Espainiako Itzuliarekiko zein Borboiarekiko edo eskrupulorik gabeko enpresarietako ohore eta koipekeria lan horiei eskainitako dedikazioarekin tartarik ez aurkitzean dagoela onartu beharko dugu; bestelako aukera txarragoa baita oraindik, orduan onartu behar baikenuke pertsonak hezteko helburua duen zentroa izan beharrean, gaur egungo zuzendaritza esklabo trantanteen taldea besterik ez dela, azken ikasturtean gertatu zen moduan ikasleen osasuna arriskuan jartzeko inolako arazorik ez duena.

Hitz bitan: higuinagarria da, zuen ikasleen hezkuntza beramatu beharrean, politika egiten diharduzuela ikustea (hori bai, kutsu monarkiko eta espainiarraz).

ION GARATE GONZALEZ (Armeria Eskolako ikasle-ohia)

*asteko***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Sexu eskandaluak gaur egungo kontuak badira, zergatik? Emakumeak boterera heldu direlako, ez dago besterik! Lehen agintean zuden gizonezko guztiek zuten bere amorantea eta hori ez zen notizia izaten. Emakumezkoek lengoia ere aldatzea lortu duzue eta zaila da sexu gehiegikeria zer den esatea orain. Berdintasun egoera batean biok oheratzea proposatzen badizut, ez da ezer gertatzen; baina, zure ugazaba banaiz, hor gauzak aldatzen dira, botere kontua tarteko"

(Gay Talese, kazetaria)

"Euskaltzaindiak Iruña Veleiarekin, Txillardegirekin egin zuen bezala, akats historikoa egin du, euskara historikoa argitzeko dugun aukera bakarra lurperatu dutenei babesa eskaini dielako, zientziari ateak ixtea justifikatu duelako eta, txarrena dena, euskararen eta ondarearen kontra egindako sarraskia ontzat eman delako. Amatiñok adierazi zuen moduan, aztarnak egiazkoak izan daitezkeela esanez 16 txosten egonda, ez da zentzugabea dataziorik ez egitea?"

(Koldo Urrutia, Arabako Iruña Argitzeko Batzordekidea)

**EIBARKO UDALA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

KARMEN-IPARRAGIRRE IGOGAILUA

Karmen eta Iparragirre kaliak lotzen dituan igogailua atzo ipiñi zan martxan. 566.338,02 euroko kostua izan dau lanak eta Estatuak ordaindu dau %100ian. Erabillera publikua eukiko dau eta 06.30-etatik 23.00etara egongo da erabilgarri.

SANANDRESAK

San Andres jaixak prestatzeko billeria egingo da martitzenian 19.00etan Portaleko ikastaro gelan (3. pisuan). Interesa daken danak dagoz gonbidatuta.

ALDERDI EGUNA

Batzokixaren ekimenez autobus zerbitzua eskinduko da domekan egingo dan Alderdi Egunera juateko. Urkizuko geltokixan (Zubi-Gainen) 09.30etan egongo da eta Ego Gainen 09.45etan. Bueltake autobusa 18.30etan izango da.

SETIENEN HITZALDIXA

'Ideologia modernuen natura eta gizakiaren duintasuna' izenburuarekin hitzaldixa emongo dau Jose Maria Setien Donostiako gozaiña izandakuak urriaren 4an Portalean 19.30etan. 'Ideologiak eta gizakia' zikloari hasieria emongo detsa Setienek hitzaldi honekin.

Museokuak pozik FECIEX-etik bueltan

AURREKO DOMEKAN ATIAK ITXI ZITTUAN 2011 FECIEX IBERIAR EHIZA, ARRANTZA ETA NATURARI BURUZKO AZOKATIK BUELTAN, bertako gonbidatu berezia izan zan Eibarko Museoko arduradunak esperientziaren gaiñeko oso baloraziño positibua egin dabe: *"Lau egunetan martxan egon dan azokak 30.000 bat bisitari jaso ditte eta antolatzaile, erakusle zein bisitan juandakuak oso pozik agertu dira ferixiak izan daben martxarekin. Horrekin batera, 'Eibarko armagintzaren museoko bilduma. Eibarko industriaren 600 urte' izenburuko erakusketiak izan-*



dako arrakastia azpimarratzeko modukua izan da". Erakusketia Eibarko Udalaren eta Armagintzaren Museuaren lankidetzari esker antolatu dau FECIEXek eta bertan 300 piezatik gora egon dira ikusgai.

Esther Kareaga Euskara eta

Kultura ziñegotzixak eta Marina Barrena Armagintzaren Museoko arduradunaren berbetan, *"ikusle mordua egotiak eta hórretxek agertu daben jakin-nahixak eragin dabe gure baloraziñua horren positibua izatia".*




Bateragune auziaren kontra

ASTELEHEN EGUARDIXAN, EAE-KO HIRIBURUETAN ETA BESTE HAINBAT HERRITTAN egin dakuaren bidetik, Eibarren be alkarretaratzia egin zan Untzagan, udaletxiaren parian, euskal gehiengo sindikalak deittuta 'Bateragune auzia' dala eta protesta egitteko. Astelehen goizian bertan Fiskalak Rafa Diez LAB sindikatuko buruzagi ohia kartzelan sartzeko eskatu eban, auzipetua espetxeratuko eben ala ez jakitteko Auzitegi Nazionalera jua zanian; Diez aurtengo apirillaz geroztik kalia eguan, baldin-zapetutako askatasunian.

Antonio Irisarri hil da

ZAPATUAN HIL ZAN ANTONIO IRISARRI ARGAZKILARIXA, 79 URTEREKIN eta famelixakuak eta lagunak azken agurra astelehenian emon zetsen, San Andres elizan bere aldeko hilleta elizkizunian. Lizarran 1932xan jaixotakua, 20 urterekin etorri zan Gipuzkura bizitzera eta harrezgero bere bizitzako zatirik haundiña Eibarren pasau eban. Azken urtietan argazkilaritzari eskindu zetsazen bere aisialdiko orduetako asko eta zaletasunak bultzatuta Elgoibarko Ongarri argazki taldiarekin bat egiñ eban. Urtiotan Parkinson gaxotasuna izanda be, horrek ez zetsan sekula eragotzi bere gustokuak ziran jardueretan parte hartzia eta bat baiño gehixago zur eta lur laga eban, edozeri ekiteko orduan beti erakutsi eban kemenarengaittik. Bestiak beste, 62 urtekin hasi zan euskeria ikasten eta bestiekin hizkuntza hori erabillita jarduteko moduko mailla lortu eban.





- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

● KOROAK ● ESKELAK ● HILARRIAK ● AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 FAX: 943 202564

Eibar galiziarrendako topagune

XXVI. EUSKAL HERRIKO GALIZIARREN EGUNA OSPATZEKO PREPARAUTAKO GUZTIAK ATZO ABIATU ZIRAN, arratsaldian Untzagako karpia zabaltziarekin batera eta domekara bittartian Untzagako plaza bixak eta Txaltxa Zelai aldia Euskal Herrixan daguazten 12 Galiziako Etxien inguruan ibiltzen diranendako topagune billakatuko dira eta, jakiña, asteburu osuan Galiziako gastronomixia eta folkloria izango dira protagonista. Karpia atzotik zabalik egonda be, inauguraziño ofiziala gaur 19.00etan egingo dabe eta segidan produktu gastronomikuen erakusketia eta salmentia hasiko dira. Eskulangintza azokia be martxan egongo da (23.00ak arte) eta horrerri daneri laguntzen folk musika emanaldixa eskinduko dabe Son de Bagoas taldekuak eta 23.00etan Casablanca Galiziako orkestraren emanaldixa hasiko da. A Coruñaiko Os Amigos txarangakuak kaliak alaittuko dittue (progamaziño osua agendan, 24. orrixan).



Domekan eguraldia lagun ez ebenez euki, frontoian aurkittu bihar izan eben babesa. / LEIRE ITURBE

Arrate izenekuak umore onian


DOMÉKAN IXA EGUN OSUAN EURIXA LAGUN EUKITTA BE, EDERTO PASAU EBEN EGUNA ARRATE IZENEKUEN JAIALDI-XAREN 15. ediziñuarekin bat egittera animau ziranak. Urteroko moduan, batzuk oiñez igo ziran, Amabirjiñaren pausuetatik eta bestiak, barriz, automobilian edo autobusian. Hamarretakuak eta meziak hasittako programia illuntzeraiño luzatu zan eta, bestiak beste, horren arrakastatsuak izaten diran jokuetan parte hartu ebena umoretsu jardun eben batzuk bestien kontra lehiatzen. Urtero antolatutako jardueretan barrittasunen bat sartzen ahalegintzen dira antolatzailliak: aurtengo sorpresia mezia amaittuta frontoian soltau zittuen txarrikumiak izan ziran.



Agur Kantabriako jaixeri

IRAILLAREN 10-IAN HASITTAKO BIEN APARECIDA AMABIRJIÑAREN OME-NEZKO JAIXAK domekan agurtu zittuen Kantabriako Etxekuak, Estaziño kaleko San Agustin elizan mezia entzun eta, piskolabisaren ondoren, Eskarne jatetxian egindako bazkarixarekin.

anzorik anzo



Legarreko jaixak bueltan

Urtiotan ospatu barik egon diran Legarreko Jaixak aurten bueltan dakaguz, auzokuak osatzen daben Legarreko Jai Batzordiak preparau daben programaziñuan jasotako ekitaldixerri esker. Jarduera guztiak bixar (zapatua) pillatu dittue, goizeko 10.00etatik aurrera bata bestiaren atzetik egitten juango dira eta programako azkenak gabeko 22.00etan hastekuak diran Ekinocio eta Son Konfusion taldien kontzertuak izango dira. Bixen bittartian era guztieta-ko ekimenetan primeran pasatzeko aukeria eukiko dabe Legarre auzora gerturatzen diranak. Jaixen hasieria 10.00etan izango da, txupinazua bota eta jarraixan egingo daben kalejirarekin. Jarraixan, 11.00etan haurrendako jolasak hasiko dira frontoian; 12.00xetan saldia eta txorizua banatzen hasiko dira eta ordu erdi geruago haurrendako jolasak segiduko dabe, garajien gaiñeko parkietan; 14.30xetan auzo bertso bazkarixa egingo da, Alberto Martinez, Juan Mari Juaristi eta Felipe Zelaietarekin. 16.00etan haurrendako taillarrak hasiko dira, pailazuak 17.00etan eta 18.00etan txokolatexana eta dantzaldixa aillegauko dira, Eteivino eta Agirrerren eskutik. 19.30xetan kalejiria egiñ eta 21.00xetan, kontzertuak hasi aurretik, patata-tortilla txapelketia jokatuko da.


eibar kaleka

Eibarko Bizikleta Plaza

San Andres elizaren aldameneko parkiari ipiñi zetsen Eibarko Bizikleta Plaza izena oin dala urte batzuk arte Plaza Barria izandakuari, gure herriko txirindularixak goguan. Edozelan be, jende morduak "Galeros" esaten detsa oindiok be.

Pegora kopurua: 0

Erroldatutakoak: 0



asteko

230

datua

emakumezko pasau dira Jabetze edo "Empoderamentu" Eskolatik oin dala lau urte beratu sortu zantetik. Urtero 60 lagunengatik bueltan jardun dau. Zapatuan hasi eben ikasturtia, Untzagan ezarritako karpeta world-kafia egiteaz: 30 emakume izan ziran parte hartzen.




LAURA ALBISTEGIK IRABAZI EBAN ABUZTUAN EROSKIN zozketatutako motorra eta Lourdes Ulangak, bestalde, bereganatu eban uztaillian Benicona elektragaillu dendak zozketatutako Senseo kafe-makina. Zotionak bixeri!



Etxeberriak sarixa jaso dau Cibelesen

MARTITZENIAN AMAITTU ZAN CIBELES MADRID FASHION WEEK-AREN BARRUAN, L'OREAL SARIXA JASO EBAN Roberto Lopez Etxeberria eibartarrak, diseñadore gaztieri eskindutako atal-ian. Etxeberriak martxuan be jaso eban sari berbera Cibelesen, orduan aurkeztu eban "La piel que habito" gizonezkueri eskindutako kolekziñuarekin. Aurten 2011-2012 Udaberri-Udarako beste bilduma bat,



"Jour de fête" izenburukua presentatu dau Etxeberriak, hain zuzen be martitzen arratsaldian pasareliari agur esateko egin zan azken desfilean. 6.000 euroko sarixa eruan daben kolekziñua Jacques Tati frantzesaren "Día de fiesta" pelikulan inspirautu sortu dau eibartarrak eta kolekziñua osatzen daben jantzixak iparraldeko hiri batian bizi dan gizonezkua eguneko edozeñ ordutan ondo jantzitta juateko pentsatutakuak dira.

Gripiaren kontrako txertaketa kanpaiña

MARTITZENIAN HASI ETA URRIAREN 31-RA BITTARTIAN, OSAKIDETZAK URTERO ABIARAZTEN DABEN GRIPIAREN KONTRAKO TXERTAKETA kanpaiña egongo da martxan. Aurtengo kanpaiñarako aukeratu daben titulua "Konplizeak gripearen aurka" da. Osasun arloko adituak azaldutakuari jarraituta, gripea infekziño-gaixotasuna da eta, beraz, edozeñek harra-patu leike. Edozelan be, txertaketa kanpaiñan beti be arreta gehixago ipintzen detse arrisku taldietan daguazeneri: 65 urtetik gorakueri, diabetikueri eta gaixo kronikueri (biriketakuak, bihotzekuak, gibeleguak eta gultzurrinetakuak). Txertua jarri nahi dabenak oso modu erreziari hartuko dau: bakotxa bere osasun-zentrora edo ambulato-




toriora juan eta hantxe bertan ipiñiko detse, hori bai, zita zuzenean zein telefonoz alde zurretik eskatuta. 65 urtetik gorakuen kasuan, nahikua da osasun-txartela edo NANA erakustia eta aipatutako arrisku-taldietakuen kasuan, barriz, famelixa medikuarengana juan bihar da bakunia ipiñi ahal izateko bolantia eskatzera.

Zortedunak Benicoban eta Eroskin

Gure Balioak proiektuaren aurkezpena

MARTITZENIAN, HILLAREN 27-XAN, EIBARKO HEZKUNTZA ESPARRUKO ARETO NAGUSIXAN PRESENTAUKO DABE Gure Balioak proiektua, 19.00etan hasiko dan ekitaldixan. Debegesatik Debarreneko garapen jasangarria lortzeko biharrekuak diran gizarte balixuak sustatzia ardatz dakan proiektuak, bestiak beste, iazko bidari jarraituta aurten be Gure Balioak Sarixa banatzia daka aurreikusitta. Gizarte-balixuetan oiñarritutako bizi-bilibidia saritu nahi daben sarixak integridadia, errespetua, ekintzailetasuna eta lankidetz-a-alkarlana moduko giza balixuak sustatu nahi ditte eta iaz M^a Teresa Gantxegik jaso eban Markel Olanoren eskutik. Aur-




Tere Gantxegik jaso zuen iaz Gure Balioak saria.

ten sarixa nork jasoko daben erabagitzeko hautagaitzak urriaren 7rako presentatu leikez (informaziño zabalagua www.gurebalioak.com webgunian). Datorren asteko presentaziñuan, bestalde, Joan Antoni Melé Triodos Bank-eko zuzendariordiak banka etikuaren gaiñeko hitzaldixa emongo dau.

Cibeles Madrid Fashion Week-a egin da azken astian eta Roberto Lopez Etxeberria diseinatzaile eibartarrak EGO pasarelaren kolekziño onenaren sarixa jaso dau. Bigarren aldiz jarraixan lortu dau Etxeberria markiak sari hau. Zorionak, holan, Roberto eta bere laguntzaile eibartar Miriam Izquierdori!

Modia jarraitzen dozu?



MARIAN GARATE
54 urte
zaintzaillia

Oiñ arte ez dot jarraitu, baiña nere alabiak, Miriamek, mundu horretan egitten dau lan eta oin bai. Roberto Lopez Etxeberria diseinatzaile eibartarrarekin egitten dau biherra eta sarixa emon detse Cibelesen. Hantxe egon giñan geu be eta oso ondo pasau genduan bertan.




RAHIM KARKAZ
37 urte
sokorristia

Lantzian behin begirutzen detsat telebisiñuari eta aldizkarixetan be fijatzen naiz. Ideia batzuk hartzen diittut eta horren arabera arropia erosten dot. Zara eta halako dendetara juaten naiz arropia eroste-
ra normalian.

VALENTIN SIERRA
32 urte
langabetua

Ez naiz gehixegi fijatzen eta edozer gauza erosten dot. Lantzian behin begiratu izan dot aldizkarixetan, telebisiñuan edo dendetan bertan, baiña ez naiz ibiltzen zehazki ezeren billa. Topatzen dotena erosten dot eta kitto.



ELENA ARREGI
68 urte
etxeakoandria

Pixkat jarraitzen dot, baiña ez gehixegi. Badakitt Cibeleseko moda astia egitten diharduela eta telebisiñuan ikusi dot zeozer. Fijatzen naiz zelako arropak eruatzen daben modeluak eta abar, zelako koloriak eruatzen diittuen, baiña daken arropak ezin dira kaletik eruan gehixenetan.



EGOITZA NAGUSIA
Bilberrista 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errozketa laboa
Egokibetan (Signo poligonoan)
Partikular, mitua eta ongure eberei zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urteumanoak etelak
Euskal Herri osoko ospitaleetan bertzen zaitugu
Nazio eta Nazioarteko traxlojioak

Mugica Ehorzketa
Funtzioak ditto

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Munduko kalerik onenak...
...toki guztietakoak eta aromatizatuak...

...hotu eta potetan berehala sartutakoak
Te jatorrizko eta aromatikoak...

Txokolatetakoak eta bonboiak...

**Zatoz dastatzera!
Zure zain gaituzu!**

Tel. 943-257536


KATETXO

J. Etxeberria, 5

TE, KAFE ETA TXOKOLATE

Informazioa eta eskaerak:
katetxo@yahoo.com
FACEBOOK-en gaude

detalle originalak aurkituko dituzu eztei, urtebetetze, Gabonetako otar eta opariak...


Asier Serranoren**kolaborazioa****Erretzaile eta ez erretzaileentzat ipuina**

Gaur ehortzi dute tabakoa erretzeari uzteko denik eta sistema eraginkorrena asmatu zuen hipnotizatzailea. Hiriaren aldirietaraino paseatu dute lanbroak zipriztindutako goiz bustian belusa arrosa sintetikoz estalitako bere hilkutxa.

Egun tristea heriotzaren gandua amasteko. Eskutik eskura igaro da hipnotizatzailearen zerraldoa, eta denek izan dute kutxa arinegia zen sentsazioa, ez dakit, kutxa huts bat besterik ez zen sentsazioa. Kez betetako hilkutxa. Eta nazio honek sekula izan ez duen gobernadore maitatuenak soilik izan zezakeen ohorezko agurra eskaini diote hiritarrek esker onez. Aditu da noski, hipnosi sesioetatik sendatua atera ez zen erretzaile konformagaitzen baten kexurik. Izan da noski, terapiaren bigarren mailako efektuek ohitura okerragoak edukitzera, edo onenean zakur izan behar zuela sinestera eraman zuten koitaduren baten zaunka oldarkorrik. Baina salbuespenak salbuespen, eta inolako ezbairik barik, esan daiteke, hipnotizatzailearen heriotzak gogor kolpatu duela hiri etsitu honen kontzientzia; batez ere, tabakoa erretzeari uzteko denik eta sistema eraginkorrena asmatu zuen hipnotizatzailea, ke gorriaren antzera, biriketako minbiziak jota hil dela ahoz aho zabaldu denean.

musika**Mafia
Omerta**

Mafia taldea Berrizen 2008an sortu zen eta urte hauetan konposaturiko kantuak Omertá (Isiltasunaren legea) izeneko diskoan grabatu dituzte. Bertan euskaraz abesturiko 13 kantu aurkitu daitezke. Rock doinu gogor eta landuak.

**Oskorri
Dantza kontra dantza**

Juan Ignazio Iztuetak 1789ko Frantziako Iraultzak ekarritako Gipuzkoako Antzinako Dantza Zaharren bat-bateko galera ezagutu zuen bere gaztaroan. Hortaz mindurik, dantza horien albiste ugari eta doinuen partiturak bildu zituen. Oskorri dantza-doinu horietako batzuk prestatu ditu.

**Stephane Hessel
Konprometitu
zaitetze**

Stéphane Hesselek axolagabekeriaren kontraegin zuen aldarrikapenak milaka eta milaka haserreturen kontzientziak piztu zituen; oraingo honetan, bakoitzaren kontzientzia etikoan oinarrituz eta bortxakeria oro bazterturik konprometitu beharra aldarrikatzen du.

**Alberto Ladrón
Arana
Zer barkaturik ez**

Bolada txarra darama Mikel Izuk: andreak utzi zuen, lanean ez da agertzen depresioagatik, bere anaia Julenen alprojakeriak jasan behar ditu... Hain zuzen, anaia etxean hatzamarra moztu eta odoldu bat aurkitzen duenean hasiko dira gauzak are gehiago okertzen eta aldrebesten.

**literatura**

Hizkuntza bat ikasterakoan, zalantzarik ez dago, gramatika ikastea bezain garrantzitsua dela gero hizkuntza hori praktikara eramatea. Euskara ere ez da salbuespena. Euskara ikasten diharduten askok, baina, ez dute aukerarik izaten euskara praktikatzeko, inguruan euskaldunik ez dutelako edo lotsa ematen dielako.

Euskaraz jarduteko txokoak:

Maiatzean Arraten egun pasa egin zuten Gurasoak Berbetan-eko partaideek.



BERBETAN eta GURASOAK BERBETAN mintzapraktika egitasmoak

Arrazoiak arrazoi, ...eta kitto! Euskara Elkartek 10. Ikasturtea beteko du aurten euskaldun berriei euskaraz berba egiteko aukera hori eskaintzen. Eta guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza transmisioa indartze aldera, Gurasoak Berbetan programa eskainiko dute herriko ikastetxe guztiek.

Eibarko bi euskaltegiekin elkarlanean 2002. urtean eman zituen lehen urratsak Berbetan programak. Maider Aranberri egitasmoa dinamizatzaileak gogoan du hasiera hura: *"Ikusten genuen euskara ikasle edo euskaldun berri askok ez zutela euska-*

ra non praktikatu. Batzuek ez zutelako inguruan euskaldunik, baina beste askoren kasuan lotsa izaten zen oztopo. Hori ikusita, euskaldun berri edo euskara ikasle horiek euskaldunekin elkartu eta astean behin ordubetez euskaraz berba egiteko mintzapraktika taldeak jarri genituen martxan".

10 urtean ia 100 parte-hartzaile

95 lagun izan dira guztira 10 urte hauetan Berbetan egitasmotik pasa direnak. Hasiera hasierako batzuk jarraitzen dute oraindik ere, eta gaur egun, 50 bat lagun elkartzen dira astero sei taldetan banaturik.

"Ordubete edo ordu eta erdian elkartzen dira euskaldun berriz eta euskaldunez osatutako taldeak, astean behin, eurek nahi duten lekuan, normalean tabernaren batean. Helburua euskaraz jardutea da, ohiturak aldatzea, eta lotsak eta konplexuak alde batera lagata euskaldun berriei euskaraz berba egiteko aukera eman nahi diegu, modu natural eta lasaiean", dio Aranberrik.


Ikastaroak eta irteerak

Astean behin elkartzeaz gain, ikasturtean zehar hainbat ekintza osagarri ere eskaintzen zaizkie berbalagunei: *"Hainbat*

U R R I A					
				1	2
3	4	5	6	7	8 9
10	11	12	13	14	15 16
17	18	19	20	21	22 23
24	25	26	27	28	29 30
31					

A Z A R O A					
	1	2	3	4	5 6
7	8	9	10	11	12 13
14	15	16	17	18	19 20
21	22	23	24	25	26 27
28	29	30			

A B E N D U A					
		1	2	3	4
5	6	7	8	9	10 11
12	13	14	15	16	17 18
19	20	21	22	23	24 25
26	27	28	29	30	31



Egin zaitez
...eta kitto!ko
bazkide!

2 0 1 1 k o
u d a z k e n e k o
k u l t u r
e s k a i n t z a

...eta kitto! Euskara Elkartea



Euskara Elkartea

Urkizu pasealekua 11, solairvartea
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com
www.etakitto.com

10. ikasturtea bete du aurten mintzapraktika saioak eskaintzen dituen Berbetan programak

ikastaro antolatzen ditugu, besteak beste, makrobiotika, sukaldaritzza, protokoloa... eta ikasturte amaieran txangoak ere bai. Horrela parte-hartzaileek elkar ezagutzen dute eta harreman-sarea ere zabaldu egi-ten zaie”.

Euskaldun falta

Aranberrik azaldu duen moduan taldeetan euskaldunen falta agerikoa da, “ezinbestekoak dira euskaldunak taldeak osatzerako orduan, euren laguntza barik ezinezkoa delako mintzapraktika saioak eskaintzea. Denbora aldetik ez da asko eskatzen zaie-na, astean behin ordubete, baina euskaldun berriek jasotzen dutena ordainezina da”. Izena eman nahi duenak ...eta kitto!-ra deitu dezake (943200918) edo bertatik pasatu (Urkizu 11, solairuartea).



Aurtengo MintzaEgunaren irudia Elizondon. Ezkerretik hasita, bigarrena Marimar eta hirugarrena Arrate.

– PARTEHARTZAILEAK –

ARRATE OSORO (euskalduna)

BIGARREN IKASTURTEA IZANGO DU AURTENGOA ARRATEK. 5 EUSKALDUN BERRIRI LAGUNTZEN DIE BESTE EUSKALDUN BATEKIN BATERA, ETA MARTITZENERO ELKARTZEN DIRA.

- Zergatik eman zenuen Berbetan-en izena?

Jende berria ezagutzeko aukera polita izateaz gainera, euskaldun berriei laguntasuna eskaintzerakoan euskararen aldeko nere aportazioa egin nahi nuelako.

- Aldaketarik igarri duzu zure taldeko euskaldun berrien artean?

Bai, hizkuntza ohitura aldatu dutela esaten didate, baina baita nik ere. Lehen kalean erderaz egiten nuenekin, orain euskaraz jarduten dut. Berba egiterako orduan erraztasuna lortu dutela ere badiote.

- Zelan animatuko zenituzke euskaldunak egitasmoan parte hartzera?

Oso giro jatorra dugu taldean, ondo pasa-

tzen dugu eta euskaldunok euskararen alde eskaini dezakeguna oso inportantea da.

MARIMAR CONDE (euskaldun berria)


LEHEN IKASTURTEA BETE DU MARIMARREK BERBALAGUN MODUAN. EUSKALDUN BERRI HONEN KASUAN, EUSKARAZ JARDUTERAKO ORDUAN ERRAZTASUNA LORTZEKO HELBURUAREKIN EMAN ZUEN IZENA BERBETAN-EN.

- Helburu hori lortzeko egitasmoa lagungarria izango zaizula uste duzu?

Zalantza barik beti ikasten da zeozer. Nire inguruan, etxekoan artean, gaztelerara jotzen dugu, eta argi dago praktikatzen ez duzuna ahaztu egiten duzula. Beraz, ondo datorkit Berbetan moduko programa.

- Euskaldun berriak parte hartzera animatuko zenituzke, beraz.

Bai, bai. Oso giro ona izaten dugu taldean, eta giro lasaiean euskaraz jarduteko aukera polita da.



URRIA


Urriak 1, zapatua
Sagardo Eguna. 12.00etatik 15.30etara eta 19.00etatik 21.00etara. Untzagan. Euskal Herriko Gorenak elkarteko 13 sagardotegiren parte hartzearekin.

Urriak 2, domeka
Kilometroak-era (Azpeitia)
autobusak joan eta etorri.

Urriak 7, barixakua
San Andres Bertso Paper
lehiaketarako lanak entregatzeko
epea zabalduko da.

Urriak 16, domeka
Nafarroa Oinez-era (Tafalla)
autobusak joan eta etorri.

Urriak 19, eguaztena
Ilunabarrian egitasmoaren barruan
“Buh txabali!” bakarrizketa-saioa.
19.00etan Portaleko areto nagusian.



AZAROA

Azaroak 7, astelehena
San Andres Bertso Paper
lehiaketarako lanak entregatzeko
azkeneko eguna.

Azaroak 23, eguaztena
Gurasoak Berbetan egitasmo
parte-hartzaileentzat “Klowntuz,
mendia!” umeentzat antzerkia.
17.30etan Portaleko areto nagusian.

Azaroak 25, barixakua
San Andres Bertso jaialdia.
22.00etan Portaleko areto nagusian.



Azaroak 3, 10, 17 eta 24, osteguna:
“Modaren sekretuak: tendentziak eta
aholkua” ikastaroa. 18.30etatik
aurrera, ...eta kitto! Euskara
Elkartean. Izen-ematea 12€
(Beralagun eta bazkideentzat 10€).

ABENDUA

Abenduak 3, zapatua.
Euskararen Egunaren barruan
“Gurasoak Berbetan eguna”.
HH eta LHko ume eta gurasoentzat
egun osoko egitaraua Untzaga plazan:
eskulanak, ipuin-kontalaria,
erakusketa... Goizez 11.30etatik
13.30etara eta arratsaldez
17.00etatik 20.00etara.

Abenduak 10 eta 11,
zapatua eta domeka:
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
pailazoan ikuskizuna Unibersitate
Laboralean.
Abenduak 31, zapatua
Kirolkitto! kirol sari banaketa
ekitaldia, 12.00etan Portaleko areto
nagusian.

...eta horrez gain:
Barixakueko ...eta kitto! astekarria
Hilero Txikitto! umeen aldizkaria
Astero Berbetan mintzapraktika taldeak
Itzulpenak eta diseinu lanak
www.etakitto.com

Gurasoak Berbetan, gurasoentzako mintzapraktika saioak

Egitasmo horrek iaz ekin zion bere ibilbideari. Herriko ikastetxe birekin eman zen lehen urratsa, baina aurten herriko ikastetxe guztietara zabalduko da. Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoek (2-5 urte bitarteko umeak) parte hartu ahal izango dute, eta Berbetan programarekin egiten den moduan, guraso euskaldunak guraso ia euskaldun edo euskaldun berriekin elkartuko dira, astean behin ordubete.

“Gurasoak bizitzako arlo guztietan seme-alabentzat eredu izan behar dugun moduan, euskararen kasuan ere berdin jokatu behar dugulakoan gaude. Guraso asko zailtasunak izaten dituzte euren seme-alabekin euskaraz jarduteko orduan, etxeke lanak egiten laguntzean edo eguneroko beste edozein egoeratan. Beraz, guraso horien hizkuntza gaitasuna hobetu eta familian euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin jaio da egitasmo hau”, Milder Aranberriren berbetan.

Umeei euskararekiko jarrera positiboa transmititzearan garrantzia ere azpimarratu

du Aranberrik, *“azkenean seme-alabei jarre-ra hori erakustea onuragarria da umeentzat, euskaraz egitera animatuko dituelako”.*

Informazioa ikastetxeetan

Aurten Eibarko ikastetxe guztiek egingo dute bat ...eta kitto! Euskara Elkartearen egitasmoarekin: *“Iaz ikastetxe birekin egin genuen lehen saiakera eta jasotako erantzun onak animatuta, gainontzeko ikastetxeetara zabalduko dugu informazioa”.* Haur Hezkuntzako ikasleen guraso guztiek jasoko dute egitasmoaren berri eta, *“Berbetan-en egiten dugun moduan guraso euskaldunak guraso euskaldun berriekin elkartuko ditugu taldeetan, astean behin euskaraz berba egiteko”.* Informazio guztia eskolan bertan jasoko dute gurasoek eta izen-ematea ere bertan egingo da, han jasotako esku-orria bete eta eskolan entregatuko da.

Talde naturalak

Taldeak egiteko orduan, ahal dela

Gurasoak Berbetan-ek Haur Hezkuntzako gurasoei eskainiko die euskara praktikara eramateko aukera

behintzat, ikastetxe bereko gurasoak elkartuko dira, baina talde mistoak ere egin daitezke, hau da, ikastetxe desberdinetako gurasoak elkartu. Batzuk umeak eskolan daudenean elkartuko badira ere, *“talde naturalak ere aprobetxatu daitezke, hau da, adibidez arratsaldetan parkean elkar-tzen den guraso taldea mintzapraktikako taldea bihurtu daiteke”.*

NAGORE MENEZO guraso euskaldun berria

HASIERATIK DAGO NAGORE GURASOAK BERBETAN MINTZAPRAKTIKA SAIOETAN. ARRATSALDERO PARKEAN ELKARTZEN ZEN GURASO TALDEA APROBETXATU ETA BERTAN LANTZEN DUTE MINTZAPRAKTIKA.

- Zelan animatu zinen saioetan parte hartzeraz?

Eskaintza etorri zitzaigun eta eguneroko parkean elkartzen garen gurasoen artean euskaldunak eta euskaldun berriak gaudenez, modu naturalean sortu zitzaigun mintzapraktikako taldea. Astean behin egin beharrean, elkar-tzen garen bakoitzean egiten dugu euskaraz.

- Erraztasuna lortu duzula igarri duzu?

Bai, eta asko gainera. Lehen asko jotzen nuen erderara, baina orain ohitura aldatu eta euskaraz egiten dut. Lehen, adibidez, banketxean erderaz egiten nuen, orain aldiz, gutxienez hasierako solasaldia, euskaraz egiten dut. Nire seme-alabek, eurekin egiteaz gain, besteekin ere euskaraz dihardudala ikustea, eredugarria dela uste dut. Eta erderaz hasten banaiz, *“amatxo, euskeraz!”* esaten didate.



JOSUNE ETXANIZ guraso euskalduna

JOSUNEK ERE BIGARREN IKASTURTEA EGINGO DU AURTEN GURASOAK BERBETAN-EN.

- Euskaldun moduan zer uste duzu eskaintzen diozula egitasmoari?

Elkarrekin euskaraz bizitzeko eta ondo pasatzeko gunea sortzen dugula uste dut. Ikasitakoa praktikan jartzeko aukeraren bidez, euskaldun berriei euskara ikasten jarraitzeko motibazioa handitzen zaielakoan nago. Atzerriko hizkuntzak ikasi eta praktikatzeko orduan nik bilatzen nuena eskaintzen saiatzen naiz: lasaitasuna, pazientzia eta konfidantza.

- Hobekuntzarik igarri diezu euskaldun berriei?

Talde bezala garapen bat antzeman dut. Orokorrean denok galdu dugu lotsa, ze euskaldunok ere lotsatu edo arrotz sentitzen gara ez ohiko egoeretan euskaraz berba egiten.

- Zelan animatuko zenituzke gurasoak parte hartzeraz?


Euskaldun bezala izena emateko ez da trebetasun handirik eskatzen, gogoia da inportanteena. Gainera, gure seme-alabei eredu paregabea eskaintzen diegu eta euskararen transmisiorako ekarpen txoa egiten dugu.




MANOLI AZKUNE URANGA

2011ko irailaren 15ean hil zen,
88 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



TEEN-
AJEA

Orain dela urte bi bidaiaria hau egiteko asmoa zeukan Ane Zabala eibartarrak eta aurten, azkenean, egin ahal izan du. Odette Portu laguna eta biak Indiako Gujarat probintzian izan dira hilabete eta erdi. Rango barnetegi batean euren laguntza eskaini dute eta, batez ere, bertako bizitza nolakoa den ikusi ahal izan dute.

ANE ZABALA, Indian bisitari:

“Gutxi izanda ere, duten guztia ematen dizute”

- India aldean egon zarete udan. Non zehazki? Eta nolatan hara?

Mumbai gaineko probintzian egon gara, Gujaraten. Bertako kultura ezagutu nahi genuen, gure laguntza eskaini... Azkenean, Mumbai astebete egin genuen hiria ezagutzen eta, ondoren, trenean (jendez beteta, zikina, txistua botatzen zuten barruan!) joan ginen Gujarat probintziako barnetegi modukora.

- Zer egiten zenuten bertan?

Goizetan ingelesezko klaseak ematen genituen eta gero umeein egoten ginen, behar zenean laguntzeko: bazkaria prestatu behar bazen, putzura joan, ura ekarri... dena delakoa.

- Nola sortu zitzaizuen hara joateko aukera?

Orain dela pare bat urte pentsatu nuen joatea eta aurten begirutzen ibili naiz nola joan nitekeen. Hiru hilabete egotea eskatzen zuten leku guztietan eta ez geneukan denbora hori, oraindik ikasten baikabiltza. Orduan, Karmengo parrokiaren ea eurekin hilabete eta erdi joatea nahi nuen esan zidaten. Azkenean Odette ere animatu zen eta elkarrekin joan ginen.

- Hobe lagun batekin joatea?

Bai, batez ere lehen astea gogorra egiten delako.

- Hara joanda, inpaktua handia izan daiteke hasieran?

Mumbaira heldu ginenean, etsipena ez, baina ikusten duzu nola dena hain zikina dagoen, nolako pobrezia, jendea kalean lotan, ortozik, gorputzeko atalak falta zaizkien pertsona asko... gogorra egin zitzaizun lehen astea Mumbai. Gujaraten, ordea, hobeto. Pobrezia badago ere, duintasun handiagoa daukate.

- Nolakoa da ekarri duzun bertako irudia?

Jendearena oso ona: duten guztia ematen dizute. Euren etxera heldu eta berehala daukazu aulkia, ura edo tea; denbora osoan zu gustora sentitzen saiatzen dira. Umeak berdin. Astearen behin gailetak banatzen zituzten, eta eurek hartu eta berehala guregana etortzen ziren: “Hartu, hartu”. Dirua zeukan jendea ezagutzeko aukera ere izan dugu, eta txoferra eta guzti ipini ziguten! Hirian hemen bezalako dendak ere badaude, prezio berdinekin. Ez dago klase ertainik hemen bezala. Askok daukatenak edo oso pobreak direnak baino ez daude.

matrikula zabalik

2011/12 EUSKARA IKASTAROAK

EUSKALDUNTZE OROKORRA

(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK

(aurrez aurrekoa)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza



Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379

eibar@aek.org


'Energia berriztagarrien', eta 'Segurtasun eta larrialdien' graduak eskaintzen ditu aruten lehen aldiz Eibarko Laboraleko EUITIn, Ingeniaritza Eskolan. Lehenengoari dagokionez, estatuan ez da inon gauza berdinik eskaintzen. Bigarrena, ordea, Kanariasen ematen da, Eibarkoa Iberiar penintsulan dagoen bakarra izanik.

Ikasketa berriak EUITIn

Berritasun handiarekin ekin diote Eibarko zentroan ikasturteari; izan ere, gradu berri bi aurkeztu dira bertan. Estatu espainiarrean existitzen ez ziren edo kasu bakarra zuten graduak, gainera. 'Energia berriztagarrien ingeniari' eta 'Segurtasun eta larrialdien' graduak dira horiek eta ia 300 ikasle berri ekarriko dituzte gure herrira. Izan ere, 'Energia berriztagarrien' graduaren kasuan

70 ikasle arituko dira (50 euskeraz eta 20 gazteleraz) eta 'Segurtasun eta larrialdien' graduan 40 ikasle hasiko dute kurtsoa (45 ikasle, gainera, Hezkuntza Zentroan hartzen dute ostatu).

'Energia berriztagarrietan' jakintza duten profesionalen eskaera gero eta handiagoa da, eta eskaera hori asetu nahi da titulazio berri honekin. Horretarako, energia berriztagarrien



Gradu berri bi aurkeztu dituzte EUITIn ikasturte hasierarekin batera, 300 ikasle berrirekin.



ganean ikasleen hezkuntza integrara eskaini nahi da sektore honetako erreferentzia eta ospeko pertsonen bidez. Aipatzekoa da, gainera, 'Energia berriztagarrien' kasuan ikasleen maila altua dela. 14tik 8,6 puntu daukate batzaz beste, Medikuntzaren atzetik bigarren nota onena dena.

Arkauteko Akademiaren ekimena

'Segurtasun eta larrialdien' graduak, bestetik, polizia, eta segurtasun eta larrialdietan profesionalak direnei euren for-

makuntza unibertsitateko titulu batekin handitzen lagunduko die. Ekimena Arkauteko Akademiak jarri du martxan EHUren laguntzarekin eta ikasleek asten honetan bertan ekin diote kurtsoari.

Graduak hiru urteko luzapena izango du eta, lehen kurtsoa gaituz gero, segurtasun zuzendari edo kontseilari tituluak jasoko dituzte ikasleek, edo lan-arriskuen aurreikuspenarako oinarrizko titulu ofiziala. Bigarren kurtsoan, bestetik, segurtasun edo larrialdietan espezializatuko dira ikasleak (euren aukerara).

2 konbinatu
2 betaurreko partekatze
97€
kristalok bako

Eibarko Bidebarrieta kaleko 2. 943 20 05 22. Multiópticas Bidebarrieta optikako negozioa erabiltzen. Tasa eta zehazkiak gure webgunean.

Bidebarrieta, 2 • Tel. 943 20 05 22 • EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721


T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura



Hortz, konplexioa eta
konkilio harrizkin
Hundelako kontrola...

PREBENTIBOAK - Tel. 943 20 18 51


m bista eder



Inbarrak
gostetu egiten gaitu

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

OSASUN



GASTESI

Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



IRAZABAL
clinica dental

RPS 04/02

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

RPS 336/05

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta Fisioterapia

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxe - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


Estetika klinika

abontza
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egungo, 6. behea - Tel.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Hemen zure tokia
izan nahi baduzu
deitu 943-206776
telefono zenbakira



GGDA

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbia. OSTEOPATIA NEUROLOGIA NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistak



Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainurtea
943 20 19 82



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmología Clínica

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.elclinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Ereko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Eibarrek domekan jokatu du Aranda de Dueron (18.00)

IPURUAN JOKATUTAKO AZKEN PARTIDUAN, DEFENTSEN BAIMEN OSOAREKIN 4-3 AMAITU ZEN NEURKETAREN OSTEAN, Eibarrek gora egin du sailkapenean, erdi aldean kokatzeraino. Zazpi puntu dituzte Manixen mutilek, domekan aurkari izango duten Arandinak baino puntu bat gehiago, eta gogor egin beharko dute partiduez jabetu nahi badute. Aranda de Dueroko taldeak bana berdindu zuen azken jardunaldian Mendizorrotzan, Alavés handiaren zelaian, eta gasteiztarrek azken minutuan lortu zuten berdintzea. Etziko neurketa arratsaldeko 18.00etan hasiko da eta epailea Villoria Linacero madrildarra izango da.


Eibar FT-ko bigarren taldeak lortu du, azkenean, denboraldiko lehen garaipena eskuratzea. Galdu ere, ez du galdu Gaizka Garitanok zuzentzen duen taldeak, baina hiru berdinketekin sailkapenean ezin zuen oso gora jo; horregatik du garrantzi berezia Gasteizen Vitoriari 1-2 irabaztea, batez ere jakinda asteburu honetan ere kanpoan jokatuko beharko duela, Portugalete talde indartsuaren aurka.



Gaizka Garitanok zuzentzen duen taldeak partidurik galdu gabe jarraitzen ahalginduko da Portugaleten.

Cristina Loeda irabazle Elgoibarren ere

ELGOIBARKO GAUEKO II. KROSA JOKATU ZEN ZAPATU GAUEAN ETA, MINTXETA TALDEAK ANTOLATUTAKO PROBAN, Arrateko Simon Aldazabal lasterketaren azken edizioan irabazteaz gain marka ezarri zuen Cristina Loeda nagusitu zen. Eibartarrak 30 minutu eta 47 segundo behar izan zituen 7'7 kilometroak betetzeko eta Ainhoa Lendínez elgoibartarrari hartu zion aurre. Gizonetzkoetan Yeray Varela oñatiarra nagusitu zen, euriari aurre eginez guztira 219 atleta biltzea lortu zuen proban.



biltzea lortu zuen proban.



Saskibaloi harrobia osatzen

KATU-KALEK, GURE HERRIKO C.D. 1173 SASKIBALOI TALDEAK dei egiten die hamahirutik hamabost urterainoko neska-mutilei, saskibaloia gogoko badute eta jokatzeko gogoz badira, eguenero Ipuruako kiroldegian egiten dituzten entrenamenduetara joateko eta izena emateko. Saio horiek 19.30etan egiten dira; bestela ere, kiroldegira deitu dezakete informazio bila.



Jardunaldi parekatua izan zen foball-zaletuko denboraldiaren estreinaldian.

Koskor eta Azkena Kalton indartsuen foball-zaletuaren hasieran

PAREKOTASUN HANDIA ERAKUTSI ZUEN FOBALL-ZALETUEN LIGA TXAPELKETAKO LEHENENGO JARDUNALDIAK, lau berdinketa eta gol bateko aldearekin erabaki zen bosgarren partidu batek erakutsi zutenaren arabera. Beste bietan, ostera, Koskor (iazko JoserAuto txapelduaren izen berria) eta Azkena Kalton erraz nagusitu ziren Teknografik (4-1) eta Aretoren (3-0) aurrean, hurrenez hurren. Alkidebak 2-1 irabazi zion Txokori eta, Caserío XOK vs

Ekoden eta Durango vs Es-morga bana amaitzen zuten bitartean, EzDok vs Living Café eta Tankemans vs Murillo Nazario (Somos Sporting-en ordezkia) binako berdinketarekin amaitu ziren.

Asteburuan honako partiduetan jokatu dira: bihar, Es-morga-Teknografik, Living Café-Durango, Murillo Nazario-EzDok eta Ekoden-Tankemans, azken hau goiko zelaian; eta etzi Koskor-Txoko, Alkideba-Areto eta Azkena Kalton-Caserío.

Buruz-buru irabazle eta binaka galtzaile Kluben Artekoan

HORRELA HASI DUTE DENBORALDIA EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO PILOTARIK: arazoa da banakako partidu bakarra jokatu dutela eta binaka, ordea, lau. Bengoetxea erraz nagusitu zitzaion (22-2) Jauregiri Añorgan; binaka, ordea, ondo jokatuta ere, Unamunzagak eta Egañiak (18-22) eta Zubizarretak eta Agirrebeñiak (17-22) amore eman behar izan zuten. Porrota jaso zuten ere Santamaria-Narbaiza kadeteen eta Zubizarreta-Andonegi jubenilen bikoteek.

Gaur Astelenan, 20.15etan hasita, Kluben Artekoaren 2. jardunaldian, Unamunzaga-Egaña bikoteak Tolosako ordezkarien aurka jokatu du

eta, jarraian, Bengoetxeak Elgetako Epelderi egingo dio aurre. Eszenategi berean, zapatuan, 11.00etatik aurrera, Santamaria-Narbaiza kadete mailako bikoteak azpeitiarrak izango ditu aurrez-aurre eta Zubizarreta-Ruiz jubenil mailakoak añorgatarrak.



Bengoetxeak berriro ere garailu irten nahiko du gaur Astelenan.

Kalamuako ordezkariak Tokyon euren maila hobetzeko

ADRIAN RIAÑO JOAN DA AURTEN TOKYORA, MANU AGIRRE IRAKASLEAREKIN, URTERO LEZ SASOI HONETAN hiri hartan ematen dituzten ikastaroak jasotzera: hobekuntzakoa irakasleentzat eta teknika eta lehiaketetako irakasleentzat. Fukushima-ren tragediak eragina izan du



matrikulazioan eta aurtten jende gutxiago izan da; hala ere, 22 herrialdetako judokak bildu dira Japoniako hiriburuan. Behin ikastaroa amaituta, bertakoen eta kanpotik joandakoen arteko lehia izan zen eta Riaño-k bere mailakoa irabazi zuen, Kodokanekoen zorionak jasoz.

Agirre eta Riaño Haruki Uemura Tokyoko Kodokaneko presidentearekin.

Sergio Ruizek garaipena 9 segundora

BERGARAN JOKATUTAKO MARTIN DEUNAREN XLV. EDIZIOAN, Debabarrena taldeko Sergio Ruiz txirrindulariak bigarren postua eskuratu zuen, Francisco García (Caja Rural) irabazlearengandik bederatzi segundora. Lehendakari Txapelketarako baliagarria zen proban, Karol Domalgaski lehiaketa horretako azken irabazlea 6. postuan sartu zen; Aitor González izan da Debabarreneko onena (4. postuan) eta taldea 7. geratu da.

Gaueko itsasoko arrantzaren lehiaketa bihar

OHIKOA DENEZ, MUTRIKUN EGINGO DA ETA, GAUEKO 21.00-ETAN HASITA, goizaldeko 03.00ak arte iraungo dute. Lehiaketa Diana ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta du eta parte hartzeko bazkideek izena eman beharko dute aldez aurretik.

Bestalde, aurreko zapatuan Santa Cruz del Fierro jokatutako eskualdeko ehiza txikiko txapelketan, Dianako lau or-

dezkarri sailkatu ziren urriaren 2an jokatu beharreko Gipuzkoako txapelketarako: Iñigo Gisasola eta Juan Manuel Gorosabel seniorretan eta Jose Luis Gisasola eta Juan Manuel Isasi beterranoetan. Eurekin batera, Elgoibarko La Unión elkarte-ko beste hiru ehiztari sailkatu ziren.



Jose Luis Gisasola beterranoak duen maila jarraitzen du erakusten lehiaketa bakoitzean.

Cedry

San Agustin Kalea 3

Denboraldi Amaiera - Stock Likidazioa

2011-09-26tik - 2011-10-01era

Astelehenetik

Ostiralera: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Larunbatean: 10:00etatik 13:00etara


Eibar Eskubaloiairen lehen urratsak

J.D. ARRATE DESAGERTUTA ERE, ESKUBALOIAK IN-DARRA IZATEN JARRAITU-KO DU HERRIAN ETA, HARI-TZA TALDEAREKIN BATE-RA, desagertutako taldean ziharduten harrobiko jokalaria askok euren gogoko kirolean jarraitzeko aukera izango dute. Talde nagusia probintziako bigarren maila territorialean hasiko da jokatzeko -hori bai, Asobalen, 1. maila nazionalean eta jubentzetan jokatzeko zuten Arrateko hainbat jokalarirekin- eta, horrekin batera, Eibar Eskubaloiak hamar-hamahiru talde izango ditu kategoria guztietan, "hasi alebinetatik eta seniorrak arte, neska zein mutil". Lehendik

Arraten zeuden jokalarien gurasoek talde batek hartu du talde berriaren ardura eta hainbat erakundeekin bildu da dagoneko. Fermin Lazkano da presidente berria, Ana Urionaguena presidente ordea eta Jose Andres Garetxana idazkaria. Imanol Alvarezek zuzenduko du talde nagusia eta bertan izango dira, esaterako, Moyua, Romero, Garetxana, Ibaibarriaga eta Telleria; Arraten jardundako beste jokalaria batzuk -Azkue, Alzaga edo Arrieta, kasu- beste taldeetara joan dira. Zuzendaritzak oraindik ere hainbat gauza zehazteko duen arren, urrian seguraski zabalduko dute bazkideak egiteko kanpaina.



Eibar Eskubaloia talde berriaren jokalaria batzuek lehenengoko entrenamendu saioan.
/ FELIX MORQUECHO




Vilariño nagusi Aramaion

ESCUADERIA EIBARKO BOST PILOTOK AMAITU ZUTEN ARAMAIOKO RALLYSPRINT-A, beste bik (Iban Tarsicio eta Alex Velasco) proba bertan behera laga behar izan zuten bitartean. Angela Vilariño, Alazne Apalantza kopilotoarekin, irabazitako proba horretan, Ruben Lapuente -Javier Goikoetxea kopilotoarekin- izan zen gure herriko ordezkari onena, 8. postuan. Atzetik sailkatu ziren Aitor Arrieta (11.a), German Agreda, Omer Araloitia eta Eneko Goirieta.

Altuna onena bere mailan Barakaldoko triatloian

DOMEKAN AMAITU ZEN EUSKAL HERRIKO TRIATLOI DENBORALDIA, BARAKALDON JOKATU ZEN Emilio Diego memorialaren XVI. edizioarekin, eta Eibar Triatloi Taldeko Alejandro Altuna onena izan zen 2. mailako beterranoen mailan, ordubete eta sei minutuko denborarekin. Ane Ziaranek, bestalde, 4. postua eskuratu zuen emakumezkoetan, ordubete eta 14 minutu eginez proba osatzeko. Probaren irabazleak, bestalde, honakoak izan ziren: Iñigo Eizagirre (Codeam) gizonezkoetan, ordubete, minutua eta 11 segundoko denborarekin; eta Maider Vallina (Garraitx) lekeitiarra emakumezkoetan, ordubete eta hamahiru minutuko denborarekin.



**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelera,
gaztelera euskarara,
eta ingelesez euskarara.**

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

**urriak
2**

kiik!

**KMK2011 AZPEITIA
EUSKAL HERRIA**

AUTOBUS zerbitzua:
IRTEERA 10.00etan, Ego-Gainetik
BUELTA 19.00etan, Azpeititik

7 euro

- J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarteak - ...eta kitto! Euskara Elkarteak



Lagun dituen bost arerio izango ditu Mikel Arrillagak Gipuzkoako Bertso Txapelketaren final zortzirenetan Elgoibarko Herriko Antzokian (urriaren 1ean, 17.30etan). Bertsoei G-Puntua aurkitzen saiatuko da Eibarko parte-hartzaile bakarra, Illunbeko finalera eramane dezaketen lehen puntuen bila.

MIKEL ARRILLAGA, bertsolaria:

“Bertso guztia plazerra izaten saiatu behar duzu”

- Non dago bertso baten G-Puntua?

Nire ustetan amaieran dago, baina saiatu behar duzu bertsoan zehar ere halako g-puntutxo batzuk sartzen ere. Bertso guztia plazerra izaten saiatu behar duzu.

- Aurkitzen zaila da?

Batzutan aurkitzen da. Egun batzutan dena irtetzen zaizu parean. Inspiratuta zaude, gaiak etortzen zaizkizu, ideiak, errimak, amaierak biribilak izaten dira... orduan, egun horietan erreza izaten da. Beste egun batzutan ez da irtetzen inolaz ere, demaseko lanak egin behar dira bertsoak botatzeko, errimak kostata, amaierak ahaztu... Asko da, beraz, nolako eguna daukazun.

- Elgoibarren jardungo duzu urriaren 1ean. Prest zaude?

Aurten prestakuntza nahiko lasai hartu dut. Udan, adibidez, ez dut ezer egin. Aurretik ondo aritu nintzen, sailkapen fasean eta abar, eta bertso eskolako dinamikari jarraitzen nion. Uda, ordea, nahiko sasoi eskasa da niretzat, izan ere, badago plaze-

tan aritzen den jendea eta errodajea egiten duena, baina nik ez dut batere kantatzen udan. Orduan, irailan hasi nintzen bertso-eskolakoekin elkartzen, nire kabuz ere lanean eta saioa urriaren 1ean izatea ondo ikusten dut. Hobe astebete gehiago izango banu, baina ez daukat. Nire bertso maila ezin dut hobetu aste bitan, orduan helburua da dakidana egiten saiatzea. Jakitea nor naizen eta saiatu hortik hurbil egoten.

- Igartzen da nolabaiteko presio berezia horrelako txapelketetan?

Bai, ikaragarria da. Orain, gutxienez, badakit zer den, nolako den, nire burua nahiko ezagutzen dut eta badakit zer eman dezakedan. Alde horretatik ez dut hainbeste presio nabaritzen, baina hara joatea oso gogorra da. Ikusle beste epailek daukazu, gero benetako epaileak daude,

zurre burua ere epaitzen duzu, eta gaizki egiteko edo ondo ez aritzeko hainbat faktore daude. Faktore horiek zuk kontrola ditzakezu neurri batean, baina zurre eskutik kanpo ere faktore asko dago.

- Txapelketetara gero eta publiko gehiago joaten dela ikusi da. ‘Boom’-a bizi du bertsolarietak?

Ez nuke ‘boom’-a esango, nik uste dut txapelketek erakartzen dutela jendea. Gizarte honetan oso lehia-zaleak gara, irabazle eta galtzaile bana egotea gustatzen zaigu. Bertso-afari batean irabazle eta galtzailea egongo balitz, agian publiko bikoitza joango litzateke. Txapelketetan jende asko ikusten da, badago ‘artalde’ bat txapelketa beti jarraitzen duena (bertsolariak, euren lagunartea, familia...) eta gero hortik kanpoko jendea. Txapelketak ez dira bertsolari-

tzaren islada oso fina. Seguruenago Elgoibarren arituko garenak beste edozein egunetan elkartuz gero, lehiaketatik kanpo, askoz ere publiko gutxiago egongo litzatekeela.

- Donostiako Zinemaldian ‘Bertsolari’ dokumentala aurkeztu da. Ikusi duzu?

Ez dut aukera izan.

- Filman Miren Amurizak dio bertsoa bota aurretiko sententzia amildegi baten erizanean egotea bezalakoa egiten zaiola. Nola sentitzen zara zu?

Orekari-sokarekin konparatuko nuke bertsoa. Hasten zarenean badakizu non amaituko duzun, soka horretan euskarri bat daukazu (erritmoa) eta bidean ez jausten saiatu behar duzu. Soka horrek kateak bezalakoa ditu, errimak direnak, eta batetik-bestera harian ibili behar duzu. Batzutan erori egiten zara eta horregatik da polita bertsolaritza, arrisku horrek bizirik mantentzen zaituelako. Beti funtzionatzen duen zerbait izango balitz, ez litzateke berdina izango, bertsoak duen tentsio hori desgertu egingo litzateke.

- G-Puntua filma izango balitz, nolako amaiera ipiniko zenioke?

Illunben, txapela buruan eta agurra botatzen. Baina ez dut ikusten. Denek esaten didate: “Mikel, lehenik zure burua ikusi behar duzu”. Ba ez dut ikusten. Saio on bat egin dezakedala ikusten dut, horrela eginez gero sailkatu naitekeela, baina egin arte ezin duzu jakin.

Final zortzirena bihar Coliseoan

Gpuntua Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetako bat Eibarren jokatu da bihar zapatuan 17.30etan hasita Coliseo antzokian. Bertan kantatuko duten bertsolariak Iñaki Gurruixaga, Agin Rezola, Jokin Labayen, Nerea Elustondo, Felix Zubia eta Iker Osa dira. Saiorako sarrerak www.gpuntua.com webgunean daude salgai eta txapelketari buruzko informazio guztia ere bertan aurkituko duzue.

Gpuntua: 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren lehenengo fasea maiatzean jokatu zen eta, udako etenaldiaren ostean, aurreko asteburuan Andoainen eta Azkoitian izan ziren final zortzirenetako lehen saioekin berrekin zitzaion txapelketari. Hamabost herritan jokatu diren saioak amaituta, abenduaren 18an Donostiako Illunben ospatuko den azken saioarekin amaituko da aurtengo edizioa.



'Gauza sinpleen kantautore handia' bezala da ezaguna Alberto Cortez. Bere berbetan, berari gertatutako gauzak kantatzen ditu abestietan. Coliseoan irailaren 30ean arituko da 20.30etatik aurrera. Argentinarrak dio, gainera, lotura berezia daukala Eibarrekin eta saioa berezia izango dela berarentzat.

ALBERTO CORTEZ,
abeslaria:

"Inon ez nago eszenatoki batean baino pozago"

- Eibarrera hilaren 30ean helzen zara. Zer geratzen da Europara 20 urterekin heldu zen argentinarrak gazteaz?

Zintzotasuna, beti pertsona bera izaten saiatze hori, mundu guztiarekin jatorra izateko asmoa, eta, batez ere, nire lanaren barruan haztea. Eta usate dut nahikoa hasi naizela, atzera begiratuz gero ordutik hona egindako bideak balio izan duela esateko adina baitaukat.

- 12 urterekin hasi zinen abestiak sortzen. Nondik datorkizu musika zaletasun hori?

Musika beti izan da niretzat bizitzako oinarri nagusia. Sei urte nituenean amak pianoa ikastera bidali ninduen eta piano karrera osoa egin nuen. Beraz, musikaria naiz beste edozer gauzaren gainetik.

- 50 urte daramatzazu eszenatoki gainean. Zerekin geratzen zara?

Jaso dudana esperientzia guztiarekin, jaso ditudan txalokekin, bihotzean ondo gordeta ditudalako, talentu eta entregaren indarrez lortu baitituz. Kataluniako Diadaren egunean, adibidez, Bartzelonan ikuskizuna eskaini nuen, eta antzerkia hain beteta zegoen, Giro-natik etorritako lagun bati aulkitxo bat ipini behar izan niola kontzertua jarraitzeko. Horrelako gauzak gertatzen direnean zure buruari esaten diozu "ca-ray", balio izan du bizitzan zehar egindako ibilbideak".



- ...

Utzidazu istoriotxo bat kontatzen. Begira, nire aita ehiztaria zen eta bere bizitzako ametsa 'Eibar' arma bat izatea zen. Lortu eta gero niri eman zidan, ehizatze sasoian negoziatzen, eta bera ez zen konforme geratu 'Sarasketa' bat lortu arte. Pentsa, beraz, zeinen lotuta dagoen nire bizitza Eibarrekin maila pertsonalean.

- Aurretik izan zara Eibarren edo inguruan abesten?

Bai, duela urte asko, baina beste sasoi bat zen, beste kezka batzuk zituen jendeak eta beste musika mota bat egiten zen. Orain Eibarko Coliseoan aritzea izugarritzko gertaera da niretzat, eta espero dut publikoarentzat ere horrela izatea.

- Badago jendea, behintzat, kontzerturako sarrerak duela hilabete batzuk erosi dituen.

Puf... Eibarko publikoak jakitea nahi dudana da eurek entzutea espero duten abestiak kantatuko ditudala. Horrez gain, azken abesti batzuk ere eskainiko ditut. 'Tener en cuenta' izena dauka azken diskoak eta esango dizut, berritasun bezala, Grammy sarietarako izendatua izan dela kantautore baten disko onena bezala. Berri zoragarria izan da niretzat.

- Aurrera jarraitzeko gogoia izango duzu beraz.

Bai. Ez nago pozago inon eszenatoki baten gainean baino. Bizi dudana momentu pozgarriena izaten da.



Carlos Sánchez-Barba zuzendaria eta Iñaki Orbegozo aurkezpenean. / EKHI BELAR

Cielito bandaren kontzertua

DOMEKA EGUERDIAN, 12.30-ETAN CIELITO MUSIKA BANDA-KOEK COLISEO ANTZOKIAN eskainiko duten emanaldiarekin ekingo diote kontzertuen sasoi berriari. Eguazten goizean Portalean egindako aurkezpenean, Cielito Musika Bandakoek urtea amaitu bitartean emango dituzten kontzertu garrantzitsuenen datak aurreratu zituzten eta, horrekin batera, Carlos Sánchez-Barbak zuzenduko duen domekako kontzertuan eskainiko dituzten piezen berri eman zuten: "Biba la banda" (pasodoblea, M. A. Arbó), "Vizcaytik-Bizkaira" (obertura, R. M^a de Azkue), "Sedona" (obertura, S. Reineke), "La gran vía" (aukeraketa, Chueca y Valverde), "Samba sensation" (samba, K. Vlák) eta "West side story" (aukeraketa, L. Bernstein).

J.A. Palacios Argizaiolan saritua

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKO JUAN ANTONIO PALACIOSEK AKZESITA eskuratu du Euskal Herriko Argazkilaritza Taldeen Elkarteak antolatutako Argizaiola lehiaketako azken edizioan, aldamenean ikusten duzuen zuri-beltzeko erretratuarekin. Argizaiola 2011 lehiaketan saritutako beste lanak ikusteko, lehiaketako arduradunen webgunera jo daiteke (www.federacionfotovasca.org).



Ermuko margolariak Portalean

GAUR ARRATSALDEAN HASI ETA URRIAREN 16-RA ARTE, ORAIN DELA 18 URTE ERATUTAKO MUGARTEA Ermuko pintura taldekoen lanak biltzen dituen erakusketa egongo da martxan Portalean, erakusketa aretoan. Ikasturteko lehenengo erakusketa



izango den hau ohiko ordutegiaren barruan bisitatzeko aukera izango da, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30-etara.

Helmholtz organoari omenaldia

PEDRO ZELAIA KULTURA BATZORDEAK GAUR ILUNTZEAN, 20.30-ETAN HELMHOLTZ ORGANOAREN 50. URTEURRENA OSPATZEKO KONTZERTU BEREZIA antolatu du Coliseoan (sarrera euro bi). Lau ataletan banatu duten programari jarraituta, lehenengo atalean Sostoa abesbatzak hartuko du parte, Jesus M^a Sagarnak zuzenduta. Organoan J. Zarrabek jardungo du eta bakarlariak M^a L. Hernandez, R. Suinaga, E. Laskurain, J.L. Garate, J. Gutierrez eta B. Garcia izango dira. Lau pieza eskainiko dituzte. Bigarren atalean Juan Luis

Agirrek jardungo du Helmholtz organoan, "Granada" (A. Lara), "El manisero" (M. Simon), "Hello Dolly" (Hermann), "En el viejo San Juan" (N. Estrada) eta "Cielito" (A. Zuluaga). Programaren hirugarren atalean Ainhoa Urkizuk klarinetearekin eskainiko dituen piezak "Solveigs Lied (OP.55.4)" (Grieg), "Adagio" (H. J. Baermann), "Ixil-ixilik" (T. Garbizu), "Hara nun dira" (Iparragirre) eta "Adio Euskal Herriari" (Iparragirre) izango dira. Eta kontzertu berezi honen laugarren eta azken atalean Iñaki Orbegozok jardungo du tronparekin, "Cazador furtivo" (C. M. Von



Weber), "Danza Húngara n^o5" (Brahms) eta "Ave Maria" (C. Gounod) jotzen.

Zapatuko ipuina bueltan

IKASTURTE BERRIARI EHINGO DIOTE ZAPATUKO IPUINA PROGRAMAKOEK BIHAR ARRATSALDEAN UMEEN LIBURUTEGIAN,



Zurumurru antzerki taldeak 18.00etatik aurrera eskainiko duen saioarekin: "Hango eta hemengo istorioak" izenburuko lana 5 urtetik aurrera dutenentzat bereziki prestatutakoa da eta bertan parte hartuko duten aktoreek mundua nola sortu zen azaltzeko dauden hainbat ipuin kontatuko dizkiete haurrei, kultura bakoitzak munduari buruzko bere ikuspegi propioa nola duen ikus dezaten. Aurreko urteotan bezala, hilero azken zapatuan eskainiko dituzten ikuskizunetara sartzeko ez da sarrerarik ordainduko, Kutxak babestutako saioak izango direlako.

Zurumurru antzerki taldeak "Hango eta hemengo istorioak" eskainiko du.

UEUko udazkeneko ikastaroak

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK IKASTARO ESKAINTZA ZABALA PRESTATU DU UDAZKENERAKO. 9 ikastaro antolatu dituzte, hiru jakintza alorretan sailkatuta: informatika eta teknologia berriak, giza eta gizarte gaiak, eta zientziak eta osasuna. Denak Eibarren, Markeskua jauregian emango dira. Izena emateko epea zabalik dago eta ikastaro bakoitza hasi baino astebete lehenago amaituko da. Lehenengo ikastaroak urriaren erdi aldera hasiko dira ematen eta gainontzekoak, berriz, azaroaren hasieran. Antolatutako ikastaroak honako hauek dira: "Moodle 2.0-ren oinarritzko erabilera (on line)", "Teknologia berriak eta intimitatea", "Argazkigintza dokumentala", "Gaur egungo munduaren historia", "Komunikazio eraginkorraren artea (II. moduloa),

"Arreta falta eta hiperaktibitatea duten ikasleekin modelatze-lana", "Tantra: maitasunaren atea", "Gaixotasun konplexuen genetika" eta "Geogebra erabiltzen ikasi: hastapenak (on line)".

Ohikoari jarraituta, Eibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie Eibarren errolatuta daudenei (matrícularen prezioaren erdia). Ikastarotant izena emateko eta informazio zehatzagoa eskuratzeko www.ueu.org webgunera jo daiteke.



laburrak

LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK

IFESek langabetuentzako ikastaro bi antolatu ditu. Bata, informatika tailerra izango da, erabiltzaile mailakoa eta 210 ordu iraungo dituena. Bestearren izena 'Soldaten kudeaketan eta gizarte aseguruetan aditua' da. 310 orduko iraupena izango du eta urtarrilaren 15ean amaituko da. Kurtsoak datorren martitzenean hasiko dira eta 09.00etatik 14.00etara egingo dira. Informazio gehiago 943202175 eta 690044133 telefonoetan.

KASINOAREN EZ-OHIKO BATZARRA

Casino Artista Eibarresek Ez-Ohiko Batzar Orokorra egingo du irailaren 30ean. Deialdi bi egin dira: lehena 19.30etan eta bigarrena 20.00etan. Gai-zerrenda kasinoan aurki daiteke.

UMEEN IRAKURKETA KLUBA

Juan San Martin Liburutegiak umeen irakurketa klubak egingo dituen saioen egunak zehaztu ditu. Urriaren 18an, azaroaren 15an, urtarrilaren 17an, otsailaren 28an, martxoaren 20an eta apirilaren 17an egingo dira 18.00tik 19.00etara.

TORTURARI BURUZKO SAIAKERA

Karrika tabernan torturari buruzko saiakera jasoko da datorren eguaztenean 19.30etan. Antzerkiaren bitartez torturaren zulo beltzetik ibilbidea egingo da norberaren moralarekin elkarriketa batean.

Aisialdian ere euskeraz

ASTELEHEN GOIZEAN AURKEZTU ZITUZTEN AFARIKETAN 2011-2012 PROGRAMA ETA URRIA AZAROA BITARTEAN MARTXAN IPINIKO dituzten Zapatuko tailerrak. Ikasturte honetan ere aurrekoen martxari jarraituko diote Afariketaren programaren barruan antolatutako ekintzetan eta, beraz, adinaren araberako eskaintza antolatu dute: Haur Hezkuntzako 3. mailakoek urriaren 24an hasiko dituzte aisialdirako jarduerak, astean egun bitan (egun bakoitzean ordubete) bakoitzaren etxetik gertuen geratzen den ludotekan (Amaña, Arrateko Andra Mari, San Andres, Urkizu, Jazinto Olabe eta Jardinetan). DLH-ko 1. eta 2. mailako umeentzat eskaintza urriaren 17an hasi eta maiatzaren 31ra bitartekoa izango da, astean egun bitan

(ordu t'erdi eguneko), auzoetako ludoteketan.

Zapatuetako tailerrak

Bestalde, eskolatik kanpo euskeraren erabilera ume zein familiako arteen sustatzeko helburuari jarraituta antolatu zuten Zapatuetako Tailerretan izena eman dutenek hainbat arlo lantzeko aukera izango dute urritik aurrera. Besteak beste, eta Gaztetan programaren barruan, dantza ikastaroa (hip-hop) emango da. 5-7 urte bitartekoentzat txontxongilo tailerra prestatu



Zapatuetako tailer gehienak Portalean emango dituzte.

dute, 11-12 urtekoek lora sikuekin eskulana egingo dituzte eta, 12-14 urtekoek sukaldaritzan trabatze aukera izango dute. Tailer gehienak Portalean emango dituzte (sukaldaritzaren ingurukoa Indianokua gaztelekuan izango da).



Sagardo Eguna urriaren 1ean

AZKEN URTE BIETAKO MARTXARI JARRAITUTA, AURTEN ERE ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK SAGARDO EGUNA ANTOLATU DU URRIAREN 1ERAKO (ZAPATUA). Goizez (12.00etatik 15.30-etara) eta arratsaldez (19.00etatik sagardo guztia amaitu arte) Untzagan ospatuko den jaialdia antolatzeko orduan Udalaren eta Gorenak elkarteko laguntza izan dute antolatzaileek eta jaiarekin bat egitera animatzen direnek 13 sagardotegitik ekarritako sagardoa edateko aukera paregabea izango dute, gainera batetik bestera joaten ibiltzeko premia bariak, herrian bertan. Parte hartuko duten sagardotegiak Alorrenea, Altueta, Barkaiztegi, Begiristain, Egi-luze, Gartziategi, Gaztañaga, Gurutzeta, Isastegi, Olaizola, Sa-

rasola, Zapiain eta Zelaia dira. Sagardoa edateko zein edatekoari laguntzeko prestatuko diren pintxoak jateko txartelak Untzagan bertan egongo dira salgai: 6 euroko txartelarekin nahi beste sagardo edateko edalontzia, pintxo bat eta zapia eskuratuko ditu erosleak eta bestela, bakarrik pintxo nahi dutenentzat txartelak 1'5 eurotan erosteko moduan egongo dira. Bestalde, egun bertan sagardoa zerbitzen, pintxoak prestatzen zein bestelako lanetan laguntzeko prest daudenak gustora hartuko dituzte antolatzaileek. Beraz, norbait horretarako prest egonez gero, lehenbailehen antolatzaileekin harremanetan ipintzea eskertuko lukete, 943200918 telefonora deituta (Maider) edo elkartea@etakitto.com helbidera idatzita.

‘El precio de la libertad’ ETB-2an


ASTELEHENEAN DONOSTIAKO ZINEMALDIAREN 59. EDIZIOAREN BARRUAN ESTREINATU ZUTEN “El precio de la libertad” Ana Murugarrenek zuzendu duen Mario Onaindiaren bizitzari buruzko filma, Victoria Eugenia antzokian egin zuten aurkezpenean eta martitzen gauean pelikularen lehenengo zatia ikusteko aukera izan zen ETB-2an, “La Noche De” bereziaren barruan. Lanaren bigarren zatia datorren asteko eguaztenean emango dute, saio berean. Estreinatu berri duten pelikulan agertzen diren aktoreak, besteak beste, Quim Gutierrez (Mario Oraindiaren paperean), Andres Herrera (Teo Uriarte), Mikel Losada, Leyre Berrocal, Chete Lera, Xavi Boada eta Patxo Telleria dira. Teatro Interior antzerki taldeko Eduardo Falces eibartarra ere tartean da, konsularen paperean. Filma Joaquin Trincadok ekoiztu du, Luis Mariaren gidoiari jarraituta.




Datorren asteko eguaztenean emango dute lanaren bigarren zatia, ETB2-ko “La Noche De” saioaren barruan.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunene bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, UNAI, astelehenian bost urte egingo dozuz-eta. Muxu handi bat famelixaren partez.




Zorionak, LAIA, bixar lau urte beteko dittuzulako. Patxo pillla maitte zaittugun guztien partez.



Zorionak, ODEI, lehelengoko urtia behelengoko urtia beteko dozu-eta. Jarraitu danori zure poztasuna emoten.




Zorionak, MARTXEL, honezkereko lau urte bete dittu-eta gure mutili haundixak. Muxu asko famelixaren partez.



Zorionak, MANEX, domekan urtia beteko dozu-eta. Ostaizka eta Nikole arreben, aitta eta amaren eta aitxitxa-amamen partez.




Zorionak, KEPA, txapeldun, astelehenian zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu potolo bat famelixaren partez.




Zorionak, JOSU, hillaren 19xan zazpi urte bete dozuz-eta. Etxekuen eta lagunene partez.




Zorionak, aitxitxa JOSE LUIS, gaur urtiak egitten dozuzelako. Josu, Ane eta Maialenen partez.



Zorionak, YURENE Rodríguez Sesma, hillaren 19xan hiru urte egin zenduazelako. Aitxitxa-amama, abuela, izeko-osaba eta amatxoren partez.



Zorionak, bikote!! MADDI, julixuan urtiak egin zenduazelako, eta PAULE, zuk eguaztenian. Patxo milla, Xabier, ama eta aittaren partez. Zorionak, tio Iñaki!!!



Gure bihotzeko MALEN eta AIMAR-i, euren 10. eta 7. urtebetetzietan, muxu pillote!! Aitatzoko eta amatxoren partez.

zinea Coliseoan



"Arriya (La piedra)"

Zuzendaria: **Alberto Gorritiberea**
Aktoreak: **Iban Garate, Ramon Agirre, Sara Casanovas, Begoña Maestre**

24an: 19.45, 22.30
25ean: 17.00, 20.00
26an: 20.30



"La boda de mi mejor amiga"

Zuzendaria: **Paul Feig**
Aktoreak: **Rose Byrne, Maya Rudolph, Kristen Wlig, Dianne West**

24an: 19.45, 22.30
25ean: 17.00, 20.00
26an: 20.30



"La piel que habito"


Zuzendaria: **Pedro Almodóvar**
Aktoreak: **Antonio Banderas, Elena Anaya, Marisa Paredes, Eduard Fernández**

24an: 22.30
25ean: 20.00
26an: 20.30


"Zooloco"
25ean: 17.00

HILDAKOAK

- Antonia Lamariano Telleria. 91 urte. 2011-IX-6.
- Emilia Izagirre Makua. 84 urte. 2011-IX-14.
- Manoli Azkune Uranga. 88 urte. 2011-IX-15.
- Pedro J. San Miguel Arginzoniz. 87 urte. 2011-IX-15.
- Antonio Irisarri Elbusto. 79 urte. 2011-IX-17.
- Ignacio Areitioaurtena Bolunburu. 59 urte. 2011-IX-18.
- Victor Mugerza Narbaiza. 94 urte. 2011-IX-19.
- Jon Joseba Aldazabal Muguruza. 78 urte. 2011-IX-19.
- Enrique Díaz Burgos. 71 urte. 2011-IX-19.



Zorionak, BEÑAT, astelehenian urtia bete zendualako. Etxekuen partez.



Zorionak, aitxitxa PELLO ta amama BELEN, zuen ezkontza egunaren 50. urteurrenien. Patxo handi bat etxekuen partez.



Zorion bikoitza, AMATXO! Egun ona pasauta, segi aurrera, beti bezañ alai. Etxeko famelixa eta aitxitxen partez, muxu handi bat zuretako eta mutiltxuarentzat.

JAIOAKOAK

- Ane Lasheras Sánchez. 2011-IX-11.
- Tarek Faraji. 2011-IX-14.

horoskopoa

ARIES

Hartu arnasa birritan, arazoa zein den berriro ere pentsatu eta egiozu aurre. Beste panoramika batetik begiratu behar dituzu gauzak eta ez itsutu.

TAURUS

Belarria garbitu, gorra ematen duzu-eta! Batzutan hobe gorrarena egitea, baina beste batzutan hobe adi egotea, badaezpada ere.

GEMINI

Begirada batek asko esaten du, berbek baino gehiago kasu askotan. Ondo jakingo duzu hori lagun horrek begiratzen dizunean.

CANCER

Denbora askoz itxaron beharko duzu, zure pazientziak baliatu beharko duzu, baina azkenean helduko da espero zenuena.

LEO

Berri ona, zalantza gabe, telefonoaren beste aldetik jasoko dituzunak. Ez da go txarto, azken aldi nahiko triste baitzenbiltzan.

VIRGO

Dena ezin duzu ulertu, baina egin ahalegina behintzat. Denak ez dira zure modukoak, beraz, onartu besteak diren bezala.

LIBRA

Egoerak modurik totonoenean okertzen dira: ederki jakingo duzu hori. Txarrena da gero denbora behar dela hori konpontzeko.

SCORPIUS

Txistea ematen badu ere, horrela izango da. Barrezka ekingo diozu, baina ondorioekin negarrerako gogo handiagoa sortuko zaizu.

SAGITTARIUS

Itxurak gordetzea gorroto duzu eta horrek arazoak ekarriko dizkizu. Dena dela, egiten duzunarekin lasai geratuko zara, arrazoi osoz.

CAPRICORNIUS

Dantzarako gogoia izango duzu. Erritmo handiarekin jaikiko zara ohetik egunero eta ez diozu lagako gerria mugitzeari gaua heldu arte.

AQUARIUS

Berandu iritsiko zara eta ezin izango duzu autobusa hartu. Etorkizunean damutuko zaizu, ikusiko duzu! Hurrengoan bizkorrago ibili.

PISCIS

Gogor lan egin duzu, denbora asko eskaini diozu gauza horri, baina hor dituzu etekinak. Pozik izango dituzu ingurukoak, harro-harro.

Barixakua 23

INAUGURAZIOA

19.00.- "Mugartea" Ermuko Pintura Taldekoen erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

GALIZIAREN EGUNA

16.00.- Galiziaren XXXVI. Eguna Euskadin. Inaugurazio ofiziala. Galiziako produktu gastronomikoen erakusketak eta salmenta. Eskulangintza azoka (23.00ak arte).
21.30.- Folk musika emanaldia, Son de Bagoas taldearen eskutik.
23.00.- Casablanca Galiziako orkestraren emanaldia. Kalejira Os Amigos (A Coruña) txarangarekin. Untzaga-Txaltxa Zelaian.

KONTZERTUA

20.30.- Helmholtz organoaren 50. urteurrena ospatzeko kontzertu berezia. Coliseoan.

ROCK OSTIRALAK

00.00.- DJ Osoron (Gose, Kañeria 13..., Mondra). KARRIKA tabernan. DJ Karba (Amaña). Suberoan.

Zapatua 24

LEGARREKO JAIAK

10.00.- Jaien hasiera: txupinazoa eta kalejira.
11.00.- Haurrentzat jolasak frontoian.
12.00.- Salda eta txorizoa banatzea.
12.30.- Haurrentzat jolasak, garajeen gaineko pakeetan.
14.30.- Auzo bertso bazkaria: Alberto Martinez, Juan Mari Juaristi, Felipe Zelaieta.
16.00.- Haurrentzat tailerrak.
17.00.- Pailazoak.
18.00.- Txokolate-jana eta dantzaldia: Etelvino eta Agirre.
19.30.- Kalejira.
21.00.- Patata-tortilla txapelketa.
22.00.- Kontzertua: Ekinocio eta Son Konfusión. Legarren.

Domeka 25

GALIZIAREN EGUNA

10.00.- Instalazioak irekiko dira. Ardo Beltz Galegoen XI. Dastaketa-Lehiaketa.
10.30/14.30.- Aisialdi teknologikoa umeentzat.
12.30.- Herri-kirolak, Ernesto Ezpeleta "Bihurriekin" eta Hodei Ezpeletarekin (12 urte).
13.00.- Gaita-musika kaleak girotzeko.
14.00.- Vermouth saioa, Casablanca orkestrarekin.
16.00.- "Chave" lehiaketa.
17.30.- "Musika-tresna xumeak" erakusketak-hitzaldia, Manu Rodriguezen eskutik.
18.00.- Sukaldaritzak lehiaketa.
18.30.- Vaamande, Lamas & Romero hirukotearen emanaldia.
19.45.- Lehiaketetako sari-banaketa.
20.00.- "The Johnny Kinnaird hirukotearen emanaldia.
21.00.- Seafoid taldearen emanaldi.
22.30.- Casablanca orkestrak.
00.00.- Queimada.
00.30.- Casablanca Galiziako orkestraren emanaldia. Kalejira Os Amigos (A Coruña) txarangarekin. Untzaga-Txaltxa Zelaian.

MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSA

15.40.- "Jazarpen politikorik ez! Eskubide guztiak denontzat" leolari jarraituta Bilbon egingo den manifestaziorako autobusaren (Bizkaibus) irteera, Ego Gainetik. Trenak **16.05**etan Estaziñoan, **16.10**etan Ardantzan.

GPUNTUA

17.30.- Final zortzirenetako saioa. Bertsolariak: Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezola, Jokin Labayen, Nerea Elustondo, Felix Zubia eta Iker Osa. Coliseoan.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- "Hango eta hemengo istorioak", Zurumuru antzerki taldearen eskutik (5 urtetik aurrera). Umeen liburutegian.

Domeka 25

ALDERDI EGUNA

09.30.- Alderdi Eguna joateko autobusaren irteera (Urkizun, Zubi Gain).
09.45.- Ego Gaineko autobus geltokian.

GALIZIAREN EGUNA

10.00.- Instalazioak irekiko dira.
11.30.- Kalejira, Euskadiko Galiziako Etxeetako folklore-taldeen eskutik.
12.45.- Harrera agintariei. Pregoia, Rosa Cedrón-en eskutik. Gonbidatu berezietan oroigarriak ematea. Agintarien berbak. Piskolabisa.
17.00.- Galiziako folklore jaialdi. Untzaga-Txaltxa Zelaian.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua: "Biba la banda" (pasodoblea, M. A. Arbó), "Vizcaytik-Bizkairs" (obertura, R. M^o de Azkue), "Sedona" (obertura, S. Reineke), "La gran vía" (aukeraketa, Chueca y Valverde), "Samba sensation" (samba, K. Vlák) eta "West side story" (aukeraketa, L. Bernstein). Zuzendaria: Carlos Sánchez-Barba. Coliseoan.

Martitzena 27

SOLASALDIA

18.00.- "Fibromialgia: futuro esperanzador" kafe-solasaldia, Loredi Salegi gizarte hezitzailearen eskutik. Amaieran Tai Chi erakustaldia, gaixoen eskutik. Sarrera librea. Elgoibarko Kultur Etxean.


GURE BALIOAK

19.00.- Gure Balioak proiektuaren aurkezpena. Hezkuntza Esparruko Areto Nagusian (Uni-EHU).

Eguaztena 28

ANTZEZLANA

19.30.- "Torturari buruzko saiakera". Esperientziaren antzerkia. KARRIKA tabernan.



erakusketak

- Irailaren 25era arte
JOSU MUGURUZA artista plastikoaren lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- Irailaren 30era arte
OLOT-EKO ARGAZKILARITZA ELKARTEkoen argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
JOSE MARI SASIETAren "Paisajes de luz" argazki erakusketa. *El Ambigü kafetegian.*
FEDERICO CUENCAren argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*
- Urriaren 16ra arte
"MUGARTEA" Ermuko Pintura Taldekoen erakusketa. *Portalean.*
- Azaroaren 23ra arte
"MEDUELELAVIDA" RUBENen erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*

farmaziak

- 23, barixakua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 24, zapatua**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 25, domeka**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 26, astelehena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 27, martitzena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 28, eguaztana**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 29, eguena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 30, barixakua**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)

ikastaroak

- **Sektore turistikoarentzako ikastaroak.**
Noiz eta non: Irailak 19, urriak 17, azaroak 21 eta abenduak 12, 09.00etatik 13.00etara Debegesan. Informazioa eta izen-ematea: 943820110 (Beatriz) edo beascobar@debegesa.com helbidean.
- **Esperientzia Eskola.**
Noiz: Urriaren 18tik ekainaren 7ra arte, martitzen, eguazten eta eguenetan, 09.30etatik 12.30etara. Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 14ra arte, Debabarreneko udaletxeetan (200 euro). 626773676 telefonoan.

telefono jakingarriak

- SOS delai112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

			6	9			3	
4	5			8				
	6	2			4		8	
								1
7			9		3			8
1								
	7		2			8	9	
				5			4	6
	2			4	8			

DENBORAPASAK

6	2	8	1	7	9	3	6	4
7	3	1	2	4	6	8	5	8
6	4	9	8	3	5	2	7	1
3	8	4	5	1	7	6	9	2
9	6	7	4	6	2	8	1	3
2	1	6	9	8	3	7	4	5
4	9	3	6	5	8	1	2	7
1	7	2	3	9	4	6	8	5
8	6	5	7	2	1	4	3	9

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Amañako dorreetan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde, komun handia, balkoi bi, trasteroa eta garajea. Tel. 626-438733 eta 679-342893.

1.2. Errentan

– Amañan pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Eguzkitsua. Tel. 646-484230.
– Logela biko pisua behar da alokairuan Bista Eder inguruan. Tel. 688-618959.
– Logela biko pisua behar da alokairuan Urkizu inguruan. Tel. 638-047847.
– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 669-966611.
– Eibarko bikote batek egoera onean dagoen pisua nahi du alokairuan. Tel. 670-428966.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 693-950032.
– Iparragirre kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 618-086191.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Amañan lokala alokatzen da. 180 m². Argitsua eta autoendako sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
– Garajea alokagai (marra) San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311. Elena.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da egunez nagusiak zaintzeko. Tel. 676-858210.
– Mutila eskaintzen da kamarero edo sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 603-580958.
– Mutila eskaintzen da kamarero edo sukalde-laguntzaile moduan eta igeltsero-peoi jarduteko. Tel. 696-849004.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.
– Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 695-303240.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 669-068439.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 671-742142.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 677-330628.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 619-507664.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 638-047847.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 618-052967.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gau eta egunez. Tel. 676-858210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko externa moduan. Tel. 649-044223.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 699-232823.
– Gizonezkoa eskaintzen da tabernetan lan egiteko, garbiketarako eta igeltsero jarduteko. Tel. 699-232823.
– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko (13.30-16.00/20.00-22.30). Nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 681-322442.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 695-303237.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 646-821678.
– Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 658-100602.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 617-571210 eta 943-200994.
– Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko eta gar-

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

biketa lanetarako. Tel. 688-618959.
– Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-517025.
– Neska euskalduna eskaintzen da garbiketarako egiteko, umeak zaintzeko, sukaldari jarduteko eta dendarri moduan. Tel. 662-471270.
– Bertako erizain laguntzaile eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ilea-paintzaile titularekin (unisex). Tel. 695-898349.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 690-154754.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-129530.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-910991.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-846740.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da. Tel. 943-207010.
– Kamarera/o euskalduna behar da asteburu eta jai-egunetarako. Esperientziarekin. Tel. 615-759399.
– Aho eta hortz higienista behar da hortz-klinika batean. Bidali kurrikulumak: dentalweb@hotmail.com
– Unibertsitatean diharduen neska euskalduna behar da arratsalde umeak zaintzeko. Tel. 605-714109.
– Ugan Klubak pilates eta spinning monitorea behar du. Bidali kurrikulumak ugan.klub@euskalnet.net helbidera.

– Neska euskalduna behar da kontsulta harrerarako, amatasun baita kubritzeko. Tel. 943-203050.
– Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 687-044311.
– Sukaldaria behar da Kultur tabernan. Tel. 685-738435.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– DBHko 4. mailako ikasleak irakasteko behar du klase partikularrak jasotzeko. Tel. 686-909088.

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut maila guztietan. Tel. 620-608065.
– Lizentziatua eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 699-069080.
– Alemanierazko klaseak ematen ditut haur eta helduentzat. Tel. 647-275374.
– Mutila euskalduna eskaintzen da LH eta DBHko klaseak emateko. Disponibilitate osoa. Tel. 636-252957.
– Ingeleseko klaseak ematen ditut. Erresuma Batuan jaioa eta tituluduna. Esperientzia. Tel. 639-434668.
– Ingenieritza titulodun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 670-251265.
– Ingeleseko klaseak ematen ditut, heldu eta unibertsitariendako. Tel. 628-061783.
– Matematiketako klase partikularrak ematen ditut, DBH ikasleendako. Tel. 695-718855.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Umearentzako kotxe-kapota salgai. Silver-Cross urdina. Egoera onean. Tel. 620-642654.
– Saxo altua salgai, Yamaha markakoa. Urtebete erabilia. 650 euro. Tel. 609-893898.
– Kotxe-kapota, silla eta maxi-coxia salgai. Egoera onean. 200 euro. Tel. 628-061783.

6.2. Eman

– Urte eta erdiko alemaniar artzai txakurra oparitzen da. Tel. 628-886098.

6.4. Bestelakoak

– Bideoak pasatzen dira VHS formatotik CD-ra. Merke. Tel. 679-740061.



DANOBAT

**MAKINA-ERREMINTA SEKTOREAN
AITZINDARIA, MONDRAGON TALDEKO
PARTAIDE ETA ELGOIBARREN KOKATUTAKO
ENPRESAK ONDORENGOAK BEHAR DITU:**

KOMERTZIAL ARLOKO TEKNIKARIA (Erref.0.500)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailakoan formazioa
- Hizkuntzak: ingelesa eta euskara jakitea ahoz eta idatziz
- Beste hizkuntza batzuk menperatzea baloratuko da
- Bidaiatzeko prest egotea
- Komertzial arlorako zalea izatea
- Komunikatzeko gai izatea

INGENIARI ELEKTRONIKOA (Erref.0.501)

Eskatuko da:

- Ingeniari tekniko edo goi mailako elektronikako arloan
- Automatismoen lan esperientzia: programazioa eta martxan jartzea
- PLC textu estrukturatu lan esperientzia (Beckhoff, B&R, Codesys...)
- CNC-en ezagutza
- Hizkuntzak: ingelesa eta euskara jakitea ahoz eta idatziz
- Lantaldeetan jarduteko erraztasuna
- Bidaiatzeko prest egotea

PROIEKTUGILE MEKANIKOA (Erref.0.502)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailakoa
- Diseinatzaile mekanikoa 3Dtan
- Esperientzia makinak diseinatzen
- Hizkuntzak: ingelesa eta euskara jakitea ahoz eta idatziz
- Mekanizatua eta muntaketa lanetako ezagupenak eta esperientzia ere baloratuko dira

MUNTATZAILE MEKANIKOAK (Erref.0.503)

Eskatuko da:

- Lanbide Heziketa II Mekanizatu bidezko produkzioa edo Industria Ekipoen mantenimendu edo muntaketa goi mailako zikloa
- Hizkuntzak: ingelesa eta euskara
- Bidaiatzeko prest egotea
- Baloratuko da:**
- Muntaketa mekanikoetan esperientzia
- Ohiko makina erremintak manejatzen esperientzia
- CNC bidezko makinak manejatzen eta programatzen esperientzia

ESKAINITZA TEKNIKARIA (Erref.0.504)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza teknikoan edo goi mailakoan formazioa antolaketa edo mekanika arloetan
- Hizkuntzak: Euskaraz eta alemanez hitz egiten eta idazten jakitea
- Bidaiatzeko prest egotea
- Komunikatzeko eta lantaldean aritzeko gaitasuna

PROIEKTU INGENIARIA (Erref.0.505)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza teknikoan edo goi mailakoan formazioa antolaketa arloan
- Bezeroarekin zuzenean lan egitea atsegin izatea
- Iniziatiba eta talde lanean aritzea atsegin izatea
- Hizkuntzak: ingelesez (hitz egin eta idatzi) eta euskaraz ondo jakitea
- Beste hizkuntza batzuek jakitea baloratuko da (frantsesa eta/edo alemana)

ESKAINITZEN DA: Antolakuntza industrial sendoaren parte izateko eta promoziorako aukera.

Interesatuak bidali curriculumak dagokien erreferentzia adieraziz hurrengo posta helbidera
(Giza Baliabideetako departamentua. 28 P.K.- 20870 ELGOIBAR)
edo helbide elektroniko honetara: gb@danobat.com



Tfnoa. 943 120108
Azitain Industrialdea, 3 - H



eraikuntzak

erreformak

igeltseritza

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK